

## ZINEMA

# “Goonies never say die”: salba dezagun abenturazko generoa!

ABENTURA ZER DEN hitz gutxitan definitu beharko banu, Omar Sharifek *Lawrence of Arabia* (1962) filmean esaten duena berreskuratuko nuke: “Ez dago ezer idatzia, norberak idazten duen arte”. Alegia, abentura bat, gidoitik kanpo bizitzea dela, gure egunerokotasun arrunt hori utzi eta espero ez genuen patu hori bizitzea azken finean. Agian horregatik liluratzeko gaituzte hainbeste abenturazko filmek, iraganeko nostalgia hori sentiarazten digutela. Zoritxarrez, azken urteetan genero zoragarri hau desagertzen ari dela uste dut, gaur egun apenas egiten diren mota honetako filmak –kalitatezkoak esan nahi dut– eta galtzear daude gure haurtzaroen kapela eta zartailuarekin jolasteko desira piztu ziguten pelikulak, hoguei urte geroago John Williams konposatzailearen soinu banda gure garunean itsatsirik mantentzea lortu zuten istorio haiek.

Zergatik diodan generoa erdi hilik dagoela? 80ko hamarkadan jaio eta hazi nintzen eta izugarri gozaten nuen gaur egun kulturko bilakatu diren film zoragarri haiekin. Betidanik pentsatu izan dut, izugarritzko lotura eta konexioa sortzen dela txikitari bizi izan genituen istorioekin. Sekulako pasioa sentitzen dut gaur egun, garai hartako film, musika edo jostailuak burura datozkidan bakoitzean. Ikusi besterik ez dago orain gutxi Donostian sortu duten ekimena. Bertako zinezale koadrila batek *Bang! Bang! Zinema* egitasmoa jarri du abian. Sinetsita daude zinemara joatea film bat ikustea baino askoz gehiago dela, eta horregatik, jarduera ludiko eta parte hartzaileak egingo dituzte emanaldi bikoitzean. Orain arte *Alien-Die Hard* eta *Life of Brian-Indiana Jones* proiektatu dituzte, horrela, saio bikoitzean. Martxoan datorrena aldiz, sekulakoa: *The Big Lebowski* eta *Goodfellas*.



Non geratu dira *The Goonies* bezalako abentura-filmak?

Baina non egon liteke generoaren arazoa? Azken urteetan, zinema-industriak bi film motarekin bonbardatzen gaituela etengabe: super-heroiak eta *remakeak* –existitzen zen film bat berregitea, alegia–. Lehen aipaturiko 80ko hamarkadako filmak berrikusiz, konturatu nintzen non egon zitekeen gakoetako bat. Lan horiek guztiak talentu izugarria zuten izenekin erlazionaturik zeuden, Steven Spielberg eta Robert Zemeckis esaterako. Garai hartan hasi berriak ziren eta nahiko ezezagunak. Hori dela-eta, gaur egun kontatzen ausartuko ez liratekeen istorio eta pertsonaiak jorratzen zituzten eta gazteei zuzenduriko filmak harribitxi bihurtu ziren. Arrakasta eta ospea irabazten joan ziren heinean, film dramatiko edo “serio-agoetan” murgiltzen hasi ziren –ez du zertan txarra izan, noski–, *Schindler's list* edo *Forrest Gump* bezalako lan bikainak adibidez. Baina horrek, modu batean esatearren, abenturazko generoa umezurtz utzi zuen. Gaur egun pantailaratzen diren genero horretako film apurrik zuzendari kaskarrek eginak izaten dira. Helburua, 3D formatu iruzurti hori eranstea, ahalik eta diru kopuru handiena lortzeko, kalita-

teari erreparatu gabe, produktu huts eta narratsak estreinatzeko.

25-40 bitarteko adina duzuenok, zer sentitzen duzue Indiana Jones, Zapparro, Elliot, Sloth edo Marty McFly bezalako pertsonaien izenak entzutean? Edo *The Goonies*, *E.T.*, *Willow* edo *Back to the future* bezalako filmak gogoratzean? Deskribaezina ezta? Ziur nago gaur egungo umeak gose direla horrelako abenturak irensteko, behin helduak direnean oroitzapen berdinak eduki eta beraien Delorean partikularrean iraganera bidaia egiteko. Abenturazko genero “purua” diodanean, nire ustez, historian egin den adibide onenarekin konparatu beharko genuke, lehen aipaturiko *Indiana Jonesekin* alegia. Saiatu mota horretako filmen zerrenda egiten eta ohartuko zarete zenbat kostatuko zaizuen 1990etik aurrera zerbait fundamentuzkoa gehitzen –egungo salbuespena Pixar izan liteke, *UP* edo *Toy Story 3* bezalako filmekin–. Nire haurtzaroko film gogokoena-ren leloak dioen bezala: “*Goonies never say die*” (Gooniek ez dute inoiz “hil” esaten): salba dezagun abenturazko generoa! ■

**Gaizka Izagirre**